



ARAUTEGIA

EUSKAL PILOTA 2025

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Pilotako Federazioarekin lankidetzan, EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu, 2025ko maiatzaren 24, 25 eta 31an Gasteizko (Araba) Mendizorrotzako pilotalekuetan. Hemen arautegia:

1. PARTAIDETZA

Parte hartze ibilbidean 2011-2012 urteetan jaiotako haurrak.

Errendimenduari ekiteko ibilbidean: Eskuz binakako modalitatean 2011-2012 urteetan jaiotako infantil mutilak eta neskak 2013 jaiotako alebin mutilak eta neskak.

Lau pilotari gehienez eta entrenatzaileak osatuko dute talde bakoitza.

Ordezko pilotariak, partiduan parte hartzeko aukera izango du titular bat kenduaz, horrela partaidetza sustatuaz. Dena den, aldaketa behin egingo da eta epaileari garaiz eta behar den bezala ohartaraziz.

Herrialde bakoitzean burututako eskolarteko txapelketetako irabazleek hartuko dute parte. Lehen fasea (herrialdeko eskolarteko txapelketa) jokatu ez bada, kasu horretan soilik lehiatu ahal izango dira azken txapelketa honetarako bereziki sortutako taldearekin.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.



2. MODALITATEAK

Parte hartzeko ibilbidea:

- Eskuz binakakoa, neskak eta mutilak
- Paleta goma, mutilak eta neskak
- Paleta Larruz
- Zesta Punta, mutilak eta neskak.

Errendimenduari ekiteko ibilbidea:

- Eskuz binaka neskak eta mutilak (infantilak).
- Eskuz binaka neskak eta mutilak (alebinak).

3. JOKO-SISTEMA

Txanda bakarreko liga.

Irabazitako partida bakoitzeko, bi puntu emango zaizkio taldeari; puntu bakarra galdutako partida bakoitzeko, eta punturik ez, taldea partidara bertaratzen ez bada.

Lehen sailkatua –alegia, liga burututa puntu gehien eskuratu dituenen– izango da irabazlea. Hurrengo postuak, modu berean finkatuko dira.

Bi bikoteraren edo gehiagoren artean puntu-berdinketarik gertatzen bada, berdinketa horretan dauden arteko “tanto average” onenaren arabera zehaztuko da sailkapena.

Berdinketa bi bikoteraren artekoa besterik ez bada, elkarren aurka izandako lehia irabazi zuena galtzailearen aurretik egongo da sailkapenean.



Bi taldek besterik ez badute parte hartzen, partida bakarra egingo da, eta bertan zehaztuko da bietatik zein den irabazlea.

Talde bakar batek izena emanaz gero, modalitatea bertan behera utziko da.

4. **JOKORAKO MATERIALAK ETA ARAUAK**

Neurriak eta tantoak:

- Parte-hartzeko ibilbidea:

	Eskuz binaka mutilak	Eskuz binaka neskak	Gomazko Paleta Neskak	Gomazko Paleta Mutilak	Larruzko Paleta	Zesta
SAKEA	10.50 m.	7.00 m.	14.00 m.	17.50 m.	21.00m	28.00 m.
FALTA	7,00 m.	7.00 m.	10.50 m.	14.00 m.	14.00m	14.00 m.
PASA- MARRA	21.00 m.	17,50 m.	21.00 m.	24.50 m.	24.50 m.	22.75 m.
TANTOAK	18	18	25	25	25	25

- Errendimenduko ibilbidea:

	Eskuz binaka infantil mutilak errendimendua	Eskuz binaka infantil neskak errendimendua	Eskuz binaka alebin errendimendua
SAKEA	10.50 m.	8.75 m	8.75 m
FALTA	10.50 m.	8.75 m	8.75 m
PASA- MARRA	21.00 m.	17.5 m	17.5 m
TANTOAK	18	18	18

- **Materialak (Pilotak):**



Euskadiko Pilota Federazioak ipiniko du jokorako materiala, eta ezaugarri hauek izango ditu:

- ESKU-PILOTA, MUTILAK ETA NESKAK PARTE HARTZEA IBILBIDEAN: pilota goxua.
- ESKU-PILOTA, MUTILAK ETA NESKAK ERRENDIMENDUARI EKITEKO IBILBIDEAN: pilota goxua pisuduna (neska alebinak), pilota mistoa edo ukitu-erdikoa.
- PALETA GOMA NESKAK: puntu, triangelu edo karratu horiko pilota. (gehienez 55 gr).
- PALETA GOMA MUTILAK: puntu, triangelu edo karratu horiko pilota.
- PALETA LARRUZ: Cervino nº 2 (eskolarra).
- ZESTA PUNTA: ohiko pilota, 100-110 g bitartekoa.

Osagarriak dituzten modalitateetan, jokalaria bakoitzak bere “paleta”, “zesta”, “kaskoa”,.... eduki beharko ditu. Paleta goma eta Larruzko paletan babeserako betaurrekoak nahitaezkoa izango dira, aurrelari eta atzelarientzat (parte hartzailearen batek ez baditu betaurrekoak ekartzen, antolakuntzak utziko dizkio partidarako).

5. SARIAK

Dominak emango zaizkie modalitate bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuei eta txapela lehen sailkatuari.

6. EZBEHARREN AURREAN.

Lesio edo ezbeharrik sortu ezker nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.



7. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d) AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurlaritzako Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioko lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Pilotako Euskal Federazioaren Arautegiak agindutakoa.

Araudiak euskaraz eta gaztelaniaz interpretatzen gatazkarik sortzen bada, jatorrizko bertsioan ezarritakoa nagusituko da.